

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
Obras	Auzotar batek galdetu du zer fasetan dagoen Ubitxa eta San Kristobal arteko igogailua.	Proiektua idazten ari dira, eta aurreikusita dago lehenengo igogailuaren obrak datorren urtean hastea.
Udaltzaingoa	Eskatu du San Kristobal 2 zenbaki parean dagoen pibotea kentzeko.	Kendu da.
Obrak	Bizilagun bat kexu da Jazinto Olabeko plazak duen zikin-itxuragatik. Esan du, falch-makina pasatu arren ez dela ondo garbitzen eta, euria egiten duenean, oso labainkor egoten dela eta ur-putzu asko sortzen direla.	Pintura pikortuagoko beste geruza bat eman da.
Zerbitzuak	Salatu du izkina batzuk eta Jazinto Olabeko plazako banku batzuen behealdea ez direla ondo garbitzen.	Mankomunitatea zazpi egunetatik seitan pasatzen da. Dagoen arazoa da ezin dela presiozko makina pasatu; parkeko erretxinazko lurzorua altxatuko litzateke, eta hezetasunak eragingo lituzke.
Zerbitzuak	Auzokide bat kexu da Abontza eta Isasi aldeko kutxatilen banda irristagaitzak oso higatuak daudelako.	Erabaki da irristatzearen aurkako tratamendua egitea, labainkorren dauden kutxatiletan.
Zerbitzuak	Salatu du ezen, Romualdo Galdos 11 zenbakiaren pareko jardinetako aspertsoreak pizten direnean, ura sartzen dela etxeetan.	Proba batzuk egin arren ureztatze-sistema itzalita edukiz ikusteko zer emaitza lortzen den, egiaztatu da arazoak ez duela zerikusirik ureztatzearekin. Uste da komunitatearen arazo bat dela.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
Obrak	Bizilagun bat kexu da kendu egin delako Juan Gisasola 20 zenbakiko aparkalekua.	Zebra-bide bate egin da. Egindako belarria, aparkaleku bat kentzea ekarri duena, beharrezkoa da oinezkoak ikusgaitasuna izan dezan.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du, udan urtero, labezomorro izurrite bat egoten dela Santa Ines eta Argatxa inguruan.	Udalerrian arratoiak akabatzeko ardura duenari abisua pasatu zitzaion inguru hartako labe-zomorroak akabatzeko egin beharrekoak egin zitzan. Jakinarazi dute lan hori hainbat aldiz egin dela; azkena irailean.
Zerbitzuak	Jakinarazi du egun batzuetan Santa Ines eta Argatxako Jardifietako farolak amatatuta egoten direla.	Udal Lantaldeko elektrizistek martxoan amaitu zituzten lanak.
Zerbitzuak	Ohartarazi du Romualdo Galdos eta Santa Ines kaleen arteko eskailera mekanikoen hirugarren zatia ez dela martxan jartzen erdiraino ailegatu arte.	Thyssenek arazoa konpondu zuen.
Udaltzaingoa	Eskatu du pibote bat jartzeko Santa Ines kaleko edukiontzi-multzoetarako igoeran. Dioenez, ezin da haietaraino iritsi ibilgailuek espaloi ganean aparkatuta egoten direlako.	
Zerbitzuak	Eskatu du zaborren edukiontzi-multzo gehiago jartzea Santa Ines eta Argatxa inguruan.	Edukiontzien azterketa adostuta dago Mankomunitatearen eta Udalaren artean, eta oraintxe bertan ez da ikusten multzo berririk jartzeko beharrik.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
Obrak	Bizilagun batek salatu du Isasi eta Romualdo Galdos kaleen arteko eskailera mekanikoak gelditu egoten direla askotan. Galdetu du ea eraiki daitezkeen aldaparik edo oinezkoentzako beste sarbiderik Romualdo Galdosetik Santa Ineseraino.	Azterlan bat egin da arrapalak egiteko azoka zaharraren inguruan, eta arrapala horiek % 10eko pendiza izango lukete, alegia, irisgarritasun-araudiak baimendutakotik gora egongo lirarteke. Hala ere, Udalak egingo ditu.
Obrak	Auzokide batek, irisgarritasun-arazoei erantzuteko, proposatu du aldapak eraikitzea, Argatxako jardinetako eskaileren ondoko jardinen parte bat kenduz, goialdera igotzeko aldapen arriskurik gabe.	Azterlan bat egin da arrapalak egiteko azoka zaharraren inguruan, eta arrapala horiek % 10eko pendiza izango lukete, alegia, irisgarritasun-araudiak baimendutakotik gora egongo lirarteke. Hala ere, Udalak egingo ditu.
Obrak	Eskatu du oinezkoen pasabide bat eraikitzea Indalezio Ojanguren 3 zenbakiaren parean. Dioenez, gaur egun dagoena urrun dago.	Aurreikusita dago puntu horretan pasabide goratu bat eraikitzea.
Udaltzaingoa	Eskatu du 30 km/h-ko seinale bat jartzea, auzokideen segurtasuna bermatzeko.	Aurki 30 Km/h-ra mugatu behar da abiadura herri guztian.
Alkatetza	Galdetu du ea nola dagoen Ipuruako Merkatu Plaza zaharraren proiektua.	Prozesu parte-hartzaile baten xede izaten ari da haren erabilerak zehazteko. Azken saio irekia azaroan egingo da, eta prozesu horretatik ateratzen diren erabilerak gauzatzeko beharrezkoak diren prozedurak egingo dira.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea aurreikusita dagoen Jazinto Olabeiko parkea estaltzea. Esan du, hala eginez gero, arazoak eragingo dizkiela hango bizilagunei.	Epe ertainera ez dago aurreikusita parke hori estaltzea.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
Alkatetza	Eskatu du Jazinto Olabeko ludotekaren arkupeak zabaltzeko, zerbitzuaren ordutegian.	Gazteria eta Zerbitzu sailak lankidetzan ari dira, eskabide horri erantzuna emateko. Guztiarekin ere, egungo egoera ikusita eta leku-premiak eraginda, ludotekak Ipuruako Merkatu zaharraren espazioa erabiliko du; horrek aukera emango du umeez erabiltzen dituzten guneak handitzeko.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du Egogain eta Isasiko eskaierak martxan jarraitzea 23:00etatik aurrera. Adierazi du denak ez direla ordu horretan gelditzen.	Arazoak egon ziren erlojuekin, baina aldatu egin ziren arazoa konpontzeko.
Zerbitzuak	Salatu du Argatxako Jardinen inguruko arbolek gaixo-itxura dutela eta adarrak etxebizitzetara sartzen direla ia.	Landaketa berri egin da.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexatu da arbola asko falta direlako Ipurua aldean eta daudenak okertuta daudelako. Galdetu du ea arbolak birlandatzeko asmorik dagoen.	Landaketa berria egin da.
Zerbitzuak	Galdetu du ea alda daitezkeen Jose Antonio Gisasolako bankuak. Esan du bi bakarrik daudela eta zaharrak direla.	Otsailean banku horiek berriekin ordeztu ziren.
Hirigintza	Informazioa eskatu du Mojen Komentuaren eraikinari buruzko planen inguruan.	Komentuaren eraikina egoera txarrean dago eta itxita egongo da eraitsia izan arte. Eraikinaren lursaila inguru horretako Kirol Ekipamenduaren parte da, eta, obrak amaitu ahala, txukundu egingo da, eta aztertu egingo da ea posible den lekua erabiltzea aisialdi-gune bezala.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
Obrak	Eskatu du Eroski parean dagoen espaloia hobetzea.	Zerbitzu Sailak konpondu ditu apurtutako baldosak.
Hirigintza	Auzokide batek pribilegioak salatu ditu Eibar KEren obretan, aparkalekuei ere eraginez. Galdetu du ea zer epe aztertzen ari diren lanak amaitzeko.	Eibar KE taldearen obrak, Ipurua erdian eta ethez inguratuta egonik, eragina izaten ari dira bai haren hiri-ingurunean bai aparkalekuetan. Kirol instalazioetan ez ezik inguruko urbanizazioan ere hobekuntzak egingo dira. Epeei dagokienez, aurreikusita dago zelaia 2020/2021 ligarako amaituta egotea eta aldameneko zelaia eta urbanizazio osagarria hilabete batzuk geroago.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du, futbol-zelaiaren obren ondorioz, ontzien eta paperaren edukiontziak kendu direlako.	Anexoaren inguruan, ontzien edukiontzi bat jarri da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek esan du argi gutxi dagoela Ipurua inguruan.	Argien azterketaren zain daude, baina aurrekoak ez zuen arazorik islatzen argiekin.
Zerbitzuak	Eskatu du Armeria Eskola parean dauden burdinak kentzeko.	Otsailaren 4an lan-agindu bat egin zen burdin horiek erretiratzeko; nolana ere, ikuskapen batzuk egin ondoren, ez dira inon topatu kexan adierazten diran burdinak.
Udaltzaingoa	Zezenbide 6 zenbakiko auzokide batek salatu du irisgarritasun-arazoak daudela. Adierazi du gurpildun aulkietan dauden pertsonen eta larrialdietako ibilgailuek irisgarritasun-arazoak dituztela.	Kaleek pendiz handia dute eta gurpil-aulkiek irisgarritasun-arazoak izan ditzakete. Larrialdietako ibilgailuen irisgarritasunari dagokionez, aparkalekuak modu egokian daude jarrita, eta ez dute haien irisgarritasuna oztopatzen.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
Zerbitzuak	Salatu du parkearen parean dauden Romualdo Galdoseko lorategiak urez betetzen direla euri asko egiten duenean, eta hezetasun-arazoak sortzen direla.	Otsailean lorategien hustubideak berrikustea.
Zerbitzuak	Eskatu du aldatzeko txipa duten edukiontzien sistema. Adierazi du pertsona askok edukiontzietatik kanpo lagatzen dutela zaborra eta, eguzkiak gogor jotzen duenean, txipak ez duela funtzionatzen.	Txartelen sistema indargabetuta dago.
Udaltzaingoa	Eskatu du aparkaleku gehiago egotea partida-egunetan.	Ipuruako futbol-zelaiaren obrak amaituta, partidu-egunetarako erreserbatutako tokiak gutxiago dira orain, eta leku gehiago dago aparkatzeko.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du ikastetxeko ikasleek oso zikin lagatzen dutela parkea eta leihoetatik gauzak botatzen dizkiotela jendeari.	Gehiago zainduko da, eta arazorik izanez gero, harremanetan jar daitezke zuzenean Udaltzaingoarekin.
Obrak	Auzokide batek dio Ertzaintza pareko asfaltatua hondoratua dagoela.	Konpondu da.
Udaltzaingoa	Eskatu du denbora gehiago emateko Ertzaintza parean dagoen semaforoari eta Barrenengoako semaforoarekin koordinatzeko.	Inguru horretako semaforoak ondo daude.
Udaltzaingoa	Galdetu du ea zebra-bide berri bat egokitu daitekeen Armeria Eskolatik Barrenengoara.	Dauden zebra-bideak nahikoak dira. Armeria Eskolaren eta bus-geltokiko irlatxoaren artean zebra-bide bat jartzeak

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
		oztopatu egin lezake semaforoan zikloa. Badira semaforo bidezko pasabideak handik gertu.
Obrak	Santa Ines 6 zenbakiko komunitateko ordezkari batek galdetu du zein den guneko irisgarritasun-plana.	Udalak konpromisoa hartu zuen behin bizilagunak obrak egiteko ados jarrita Udalak ere bere aldetik egingo zuela irisgarritasun hori lortzeko.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du arazoak daudela Ipuruan katuekin, gizon batek haragia ematen dielako .	Garbitasun Publikoaren Ordenantzak debekatu egiten du kalean edozein eratako hondakinak lagatzea. Halako jokaerak ikusten direnean, salatu egiten dira.
Zerbitzuak	Eskatu du kentzeko Romualdo Galdos kaleko 14 zenbakiko atari ondoan dagoen paperontzia. Adierazi du inork ez duela garbitzen.	Abisua pasatu zaio Mankomunitateari eta hango arduradunak adierazi du garbitzen dela.
Zerbitzuak	Eskatu du Romualdo Galdos 12 pareko bankuak gorago jartzeko jende gehiagok erabil ditzan.	Romualdo Galdos 12n ez dago bankurik.
Zerbitzuak	Eskatu du Jazinto Olabeko parkeko burdin-hesiak zabaltzea. Adierazi du arkupeak oso zikinak daudela eta hustubideen tapak falta direla.	Mankomunitatea zazpi egunetatik seitan pasatzen da. Dagoen arazoa da ezin dela presiozko makina pasatu; parkearen erretxinazko lurzorua altxatuko litzateke, eta hezetasunak eragingo lituzke. Hustubideen estalkien arazoari dagokionez, otsailean estalkiak otsailean ordeztu ziren.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila	Lapurbena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Salatu du Argatzako jardinak txakur-kakaz beteta daudela.	Antzematen denean jabe batzuek ez dituztela txakur-kakak jasotzen, salaketak jartzen dira.
Alkatetza	Kexa adierazi du neguan kiroldegiko kantxetan egiten duen tenperatura ez delako 12 gradutik gorakoa. Gainera, esan du barandek ez dutela araudia betetzen.	Kantxek Kirola Patronatuak berak kontrolatzen duen berokuntza-sistema bat dauka. Barandei dagokienez, betetzen dute eraiki ziren unean ezarrita zegoen araudia. Erabileraren arabera egokitzen dira; hortaz, berritzen direnean indarreko araudira egokituko dira.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Ipurua

DATA: 2019/11/19

Saila

Lapurbena

Erantzuna